

Krisiari erantzuten gizarte ekonomia eta ekonomia solidariotik

Gizarte ekonomia eta ekonomia solidarioaz ari garenean, aktibitate ekonomikoaren zergatia eta helburua pertsonak direla ulertzen duen korronte ekonomikoaz ari gara. Ekonomia modu kooperatibo eta solidarioan ulertzen duena.

Eta bizi dugun krisiaren sortzailea ez da izan, inondik inora ere, sektore ekonomiko hori.

Aitzitik, bizi dugun krisi latzaren jatorria, ekonomia kapitalista gordina eta merkatu librearen dogmak elikaturiko mugagabeko diruzalekerian aurkitzen dugu. Finantza sistemaren kontrol ezak azkenik lehertu egin diren gehiegikeriak eragin ditu.

Eta ikusi dugu liberalismo ekonomikoaren defendatzaile sutsuenek ez dutela lotsarik eduki, kontraesan nabarian erori arren, Estatuaren laguntza eskatzeko, milaka miloi euroren bitartez, pikutara zihoan banku sistema berpiztu zezan.

Larriena da, krisiaren jatorria ongi identifikatu arren, arazoaren erroak bere horretan dirauela. Krisia ahalbideratu duen sistemaren joko-arauak ez dira aldatu: merkatu librearen eta kapitalaren mugagabeko pilaketaren aukera, esku pribatuetan, nahiz eta, horren ondorioz, gizarte beharrianentzat dauden baliabideak etengabe murriztu.

Gizarte beharrian horiek, pertsonen beharrak azken finean, asetzeko asmoz agertzen da eszenatokian gizarte ekonomia eta ekonomia solidarioa.

Testuinguru latzean bada ere, aktibitate ekonomikoaren ezaugarriak birrasmaturik, betiere helburua pertsonen beharrianak asetzeari izanik, hainbat ekimen garatzen dira gizarte ekonomia eta ekonomia solidarioaren esparruan.

Aurkezten dizugun ale honetan, irakurle estimatua, ekimen horien hainbat adibide dituzu. Alea 12 artikulutan banatzen da eta ekonomia sozial eta solidarioaren gaiari ikuspegi diferentzetatik heldzen zaio, hori bai, beti gaurko errealitateari eta batez ere krisiari lotuta. Egileak, guztira 17 dira eta gaiak batez ere bi diziplinetatik lantzen dituzte, zuzenbidetik eta

ekonomiatik. Artikulu batzuk erabat kontzeptualak dira, beste batzuk errealitate eta aspektu konkretuen azterketan zentratzen dira batez ere eta badaude baita gizarte ekonomia eta ekonomia solidarioaren erronken inguruan hausnartzen dutenak ere.

Juan Carlos Pérez de Mendiguren eta Enekoitz Etxezarretak «Ekonomia Sozial eta Solidario» adiera beraren interpretazio eta posizio hartze ezberdinen inguruko gogoeta bultzatu nahi dute. Iritzi desberdinak bildu eta sailkatu ondoren, egileek diote izendapena aukera berri moduan ikusi beharko litzatekeela, bi espazioek elkar onartu beharko luketela eta baita egitasmo partekatuak egiteko borondatea sendotu ere.

Mertxe Larrañaga eta Yolanda Jubetoren testuaren helburua ekonomia solidarioaren kontzeptualizazioan aurreratzea da, batez ere feminismo-tik baina baita gaitasunen ikuspegitik ere, eta horretarako bizitzaren iraunkortasunaren paradigmatik abiatzen dira. Lan honetan bidezkoagoa den mundu bat eraikitzen hasteko pertsonak, giza harremanak eta oinarritzko beharren asetzea ekonomiaren erdigunean kokatu behar direla azpimarratzen da.

Ildo berdinetik jarraituz, Leticia Urretabizkaiak Ekonomia Sozial eta Solidarioa, landako ekonomia eta ekonomia feminista oinarritzat hartzen ditu eta hiru ikuspegi hauentzat diskurtso bateratua planteatzen du. Egiten duen azterketaren ardatza elikaduraren arazoa da eta hortik abiatuta, batetik, egungo sisteman ezkutarazitako krisiak, eragileak eta lanak ikusten dira, eta bestetik, beste sistema batera bideratzeko gaitasun eta gakoak azaltzen dira.

Cristina de la Cruz-en artikuluak finantza etikoen balorea eta garrantzia aztertzen du gaurko testuinguru ekonomikoan. Analisia ikuspuntu etikotik egiten da eta begirada etikoak justiziaren esparruan kokatzen gaitu nahitaez. Egileak, finantza etikoek eraldaketa sozialarekin duten izaera politiko konprometitua azpimarratzen du. Izaera hori, mailegu-eskubidearen aitortza dela-eta, gaurko finantza sistematik baztertutako gaitasunak behar dituztenei loturik doa.

Aitor Bengoetxeak krisiaren aurrean, enpresa kapitalistek eta lan elkartuko kooperatibek har ditzaketen eta hartzen dituzten neurriak konparatzen ditu eta hori egiteko oinarrian batzuen eta besteen araubide juridikoa aztertzen du. Artikuluan lan zuzenbidea eta zuzenbide kooperatiboa konparatzen dira, lan baldintzak aldatu eta kaleratzeari buruzko araei dagokionez. Horrela ikusi nahi da sozietate kapitalistek eta kooperatibek lan egiteko eskubidearen eta enpleguan egonkortasunako printzipioaren aurrean duten jarrera.

Itziar Villafañez-en lanean 2005-2013 epealdirako Espainian, EAEn eta Nafarroan kooperatibek konkurtsuan egoteko duten joera aztertzen da. Emaitez baieztatzen dute krisi garaietan kooperatibek beste enpresa mota

batzuk baino erresistentzia handiagoa erakusten dutela. Indar hau kooperatiben berezko ezaugarri batzuk azal dezakete, hala nola bazkideen inplikazio handiagoa, kooperatiben arteko kooperazio mekanismoak edota etekinak kapitalizatzeko politikak.

Jon Morandearak egindako atalean Euskal Gizarte Ekonomiak krisi garaian izandako bilakaera aztertzen da eta horretarako Gizarte Ekonomiako Euskal Behatokiaren datuak eta txostenak erabiltzen dira. Horrela errealtatearen oso gertuko irudi fidela lortzen bada ere, autorearen arabera informazio sozioekonomikoak lortzeko zailtasunak egon badaude eta badago oraindik zer egina informazio esanguratsua eta fidagarria osatzeko. Zentzu honetan Gizarte Ekonomiako Legea lagungarria izan daitekeela azpimarratzen da.

Baleren Bakaikoak azaltzen du balore eta printzipio kooperatiboak jendarte kapitalaren osagaiak direla, eta beroiek barneratzen dituzten enpresak sendotasun eta iraunkortasun ziurragoa dutela beste edozein enpresak baino. Jendarte kapitala enpresa, eskualde edo herrialde baten garapen ekonomiko eta soziala esplikatzen duen ekoizpen faktoreen osagai intangiblea da. Testuan azpimarratzen den printzipioa interkooperazioarena da eta egilearen esanetan beraren bidez enpresa proiektu bideragarriagoak sortu daitezke, azken finean jendarte kapitalek ugariagoa baitute.

Anjel Errasti eta Aitziber Nuñez-en artikuluan Mondragon kooperatibataldeko enpresek nazioartean hazteko estrategia aztertzen da. Konkretuki ikusi nahi da filial txinatarretako jarduerak zer neurritan datozen bat Arrasateko kooperatiben balio, misio eta aldarrikapenekin. Autoreen iritzia da izugarrizko aldea dagoela kooperatiba-eredu tradizionalaren eta atzerriko «ondorengo» enpresen ereduaren artean, bai lan-baldintzei, giza baliabideen kudeaketaren arloko jardueri, eta industria-harremanei dagokienez.

Ainhoa Larrañagak autoeraketa exigentearen beharra azpimarratzen du. Autoeraketak oinarrian du demokrazia, eta kooperatibetan demokrazia formula gainditu beharra dago eta demokrazia parte-hartzailerako saltoa ezinbestekoa da. Autore honek dio demokrazia ezin dela ulertu informazio gardentasunik gabe. Komunikazio gardena konfiantzarako giltza izan daiteke eta honela proiektuarekiko kolektiboaren atxikimendua eta inplikazioa sendotu egin daiteke.

Igone Altzelaik bi kontzeptu hartzen ditu oinarritzat: gizarte-ekonomia eta gizarte-enpresa. Aurkezten duen lanean alde batetik gizarte-ekonomiak krisiaren aurrean eskaintzen dituen onurak ikustarazten ditu, eta beste alde batetik gizarte-enpresa aztertzen du krisiari aurre egiteko interes handiko baliabidea izan daitekeelako. Enpresa hauek har ditzaketen forma batzuk gizarte-ekonomiaren ideiarekin lotuak egon dira baina beste batzuk ez. Beraz gizarte-enpresa definituko duen legezko eredu bat eraikitzeko garaia dela dio autoreak.

Unai del Burgo, Baleren Bakaikoa, María Jesús Luengo eta Eduardo Mallés irakasleek ekonomia sozial eta solidarioko erakundeek dituzten helburu ekonomiko eta sozialen arteko oreka bermatzea oso zaila dela diote, eta garai historiko honetan beharrezkoa jotzen dute hobekuntzak proposatzea arlo guztietan. Artikulu honetan kudeaketarako informazio-sistemetan zentratzen dira, kudeaketarako sistema multidimentsionaletan, aldagai finantzario eta ez finantzarioak kudeatzeko informazio sistemetan hain zuzen ere.

Eskertzekoa da autore guztiak egin duten ahalegina. Apaltasunez, espero dugu Gizarte Ekonomia eta Ekonomia Solidarioaren garapen konzeptualean eta praktikoan ekarpena egin izana eta hemen aurkezten dugun ale hau irakurleentzat interesgarria izatea eta hauen jakin-mina piztea.

*Aitor Bengoetxea Alkorta
Mertxe Larrañaga Sarriegi
Koordinatzaileak*